


# ANIMA: BALIO PROPOSAMENA



- Ze behar edo arazo konpontzen du?

Produktu batek ingurumenarekiko duen inpaktua erakusten digu: Produktu honek duen plastikoa edo beste material batez osatutako bilgarriak egingo duen ibilbidea, non amaituko duen, nola berrerabili daiteken eta abar.

Horretarako aplikazio bat sortuko dugu, non mugikorreko kamera erabiliz produktuen barra-kodea eskaneatu eta informazio guzti hori eskainiko duen; gaur egungo gizartearen ingurumenarekiko kezka eta jakin nahia asetuz.

Adibidez, freskagarri lata baten barra kodea eskaneatuz, lata hori kontsumitu ondoren zer kontainerretara bota behar den behar bezala birziklatzeko, gaizki birziklatu ezkeron non amaituko duen, zenbat urte beharko dituen deskonposatzeko, ingurumenarekiko zer nolako inpaktua izango duen, non ekoitzi den produktua, eta ekoizpen eta banaketa horrek sortu dezaken kutsadura.

- Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?

Gaur egun ingurumenarekiko kezka gero eta handiagoa da, eta jendeak informazio iturri erraz bat topatu nahi du, eta hori eskainiko dugu. Doako aplikazio baten bidez, eta momentu oro erabiliko ahal dena, mugikor bat eta internet konexioa besterik ez baita beharko.

- Balio motak

BALIO KUANTITATIBOA ➡ Aplikazioa doakoa da

BALIO KUALITATIBOA ➡ Aplikazioa erabiltzeko erraza, informazio baliagarria eskaintzen du. Horrez gain, aplikazioaren antolaketa oso egokia izango da eta txukuna.

- Lehiakideengandik bereizten gaituena

- Ez dago informazio hori eskuratzeko modu errazagorik (Berritasuna).
- Informazio fidagarria.
- Eskuragarria.
- Behar bat betetzen du.
- Diseinu ulerterraza, intuitiboa, erraz erabiltzekoa.
- Azkarra.
- Gizartearekiko onura (Ingurumenarekiko kontzientziarioa).